



Sarrera Berriak Iritziak Gazteak Zorion agurrak Agenda Multimedia Hemeroteca

Ospe handiko musikariak XIII. Akordeoi Jaialdian

Zero Sette akordeoi orkestrak antolatuta, XIII. Akordeoi Jaialdia egin zuten atzo, iluntzean, herriko kultur etxean. Aurtengoan, ospe handiko musikariak izan ziren protagonistak eta sekulako musika emanaldia eskaini zieten kontzertuaz gozatzera gerturatu ziren ikus-entzuleei.



Txintxarri 2016/11/13 9:28

A+ A-

Beste urtebetetz, hamahirugarrenez, Zero Sette Akordeoi Orkestrak eta udaleko Kultura Sailak antolaturiko XIII. Akordeoi Jaialdia egin zen atzo, Lasarte-Oriako Manuel Lekuona Kultur Etxean. Aurtengo jaialdian, Euskal Herriko zein nazioarteko goi-mailako musikariak izan ziren protagonistak.

Akordeoilariekin batera, beste zenbait instrumentu ere aritu ziren atzokoan, baita dantzari bat ere, eta askotariko estiloetako obrak eskaini zizkieten bertaratutakoei. Munduan barrena bidaiatzeko aukera ederra izan zuen atzokoan publikoak.

Iluntzeko 19:00etan eman zioten hasiera musika emanaldiari eta Susana Cencillo akordeoilariak eta Javier Perez tronpeta jotzaileak osatutako bikotea izan zen agertokira igotzen lehena. Orian urtebete elkartu ziren musika-bikote gisa eta urte askotako esperientzia duten musikariaren eskutik, euskal kantak, Bossa Novak eta Frantziako musika doinuak entzun ahal izan ziren atzokoan, besteak beste.

Ordu erdiko musika emanaldiaren ostean, bigarren taldea igo zen oholtzara. Hiru musikaririk eta Claqué dantzari batek osatutako 'Clak'Tet' taldearen txanda izan zen orduan. Roberto Gervasi Akordeoilariak, Yannis Constans gitarra jotzaileak, Camille Wolfrom kontrabaxuak eta Sagari Ur dantzariak, musika eta dantza uztartu zituzten emanaldian zehar. Musikariaren doinuak eta erritmoak dantzatu zituen Claqué dantzariak emanaldi ikusgarrian. Swing, Jazz eta musika brasildarreko doinuak entzun ahal izan ziren taldearen atzoko emanaldian.

mintzalaguna.eu



OHARRAK

1966.urtean jaiotako enafaria
1962. urtean jaiotako enafaria
1963. urtean jaiotako enafaria

AGENDA (Gaur)

Lasarte-Oria

17:00 Zinea
Manuel Lekuona
kulturetxean

Usurbil

10:00- Jaiak
14:30 Mikel laboa plaza
19:00 Kultur astea
Sutegiko auditorioa

Julien Gonzales musikari frantsesa izan zen arratsaldeko hirugarren eta azken gonbidatua. Musika estilo ezberdinetako doinu ugari entzun ahal izan ziren atzo eskaini zuen kontzertuan. Horien artean, euskal doinuak, Jazz estiloko piezak, tangoa, Frantziako Musette-a, musika klasikoa eta Errusiako musika piezak eskaini zizkien ikus-entzuleei.

Emanaldiak amaitu ostean, Zero Sette Akordeoi Orkestraren eta udalaren izenean, oroigarri bana eman zieten gonbidatuei. Willy Berasaluze Debako artistak jaialdirako sortutako 'Akordeoiaren Olatua' garaikurra jaso zuten musikariek udaleko ordezkarien eskutik.

Jaialdiarekin amaitzeko, gonbidatu guztiek elkarrekin azken obra bat eskaini zuten eta txalo zaparrada luze batekin agurtu zituen ikusleak artista guztiak.

Atsegin dut 0 Tweet

ARGAZKIAK



BIDEOAK



Akordeoi Jaialdiko gonbidatuek elkarrekin izan zuten azken obra bat

Tweets by @txintzarrius

Txintzarri
@txintzarrius
Ospe handiko musikariak XIII. Akordeoi Jaialdian #lasarteoria dvr.it/MTTXm

1h

Txintzarri
@txintzarrius
Etxeko produktuak baserritik plazara dvr.it/MIDZRK

22h

Txintzarri
@txintzarrius
Hirugarrenak laugarrenari lekukoa

Embed View on Twitter



ZORION AGURRAK

AMAIUR



Zorionak nere arreba maittia eta 8 muxu erraldoi, Ekain, aitaixo eta amatxoren partetik.

AZKEN PDFa

